

4

Hizkuntzaren transmisioan eragiten ari diren faktoreen azterketa

Patxi Juaristi

EHU/UPV – Euskal Herriko Unibertsitatea

patxi.juaristi@ehu.eus

Sarrera-data: 2016-06-18 | Onartze-data: 2016-07-22

Laburpena. Arrakasta eta aurrerapausoekin batera, euskararen transmisioak baditu hutsuneak, arazoak edota gabeziak. Artikulu honetan, euskararen transmisioan eragiten dute faktore batzuk aztertzen dira, dauden ahuldadeak eta indarguneak hobeto ulertzeko helburuarekin. Zehatzago esanda, aztertzen duguna zera da: familiak, eskolak, unibertsitateak, euskaltegiak, aisialdiko eta eskolaz kanpoko jarduerak, hedabideak eta kultur produktuek transmisioan duten eragina. • **Hitz gakoak:** *transmisioa, familia, eskola, unibertsitatea, aisialdia, eskolaz kanpoko jarduerak, euskaltegia, hedabideak, euskal kultur produktuak.*

Abstract. Success and progress notwithstanding, the transmission of Basque has gaps, problems or shortcomings. This article explores some of the factors affecting the transmission of Basque so that the weaknesses and strengths can be better understood. To be more specific, what we are analysing is this: the effect exerted on transmission by ideologies, families, schools, universities, Euskaltegis (Basque-language teaching centres for adults), leisure and after-school activities, the media and cultural products. • **Key words:** *transmission, family, school, university, leisure, after-school activities, Euskaltegi (Basque-language teaching centre for adults), media, Basque culture products.*

Izaera eta oinarri desberdineko transmisioei esker, euskararen indarberritze prozesuak pauso erabakigarriak eman ditu azken urteotan. Gaur egun, Euskal Herriko bikote euskaldun edo misto (gurasoetariko batek ez daki euskaraz) gehienek euskaraz irakasten diete euren seme-alabei (Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza, Hizkuntza-Politika eta Kultura Saila, 2012:20). Horrez gain, hainbat dira euskarazko irakastereduetan matrikulatuta dauden ume eta gazteak (www.eustat.eus). Euskal unibertsitateetan ere, gora doa gradua euskaraz egitea erabakitzen duten ikasleen ehunekoa (UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidaria (2013-2017) <http://www.ehu.eus>); eta euskaltegietatik euskal hiztun berri ugari ateratzen da (www.eustat.eus). Transmisio bide askotatik egiten da (ez bakarrik familiaren bidez), eta bide hauek guztiak funtzionatzen dutelako, euskaraz dakitenen kopurua handitzen ari da urtez urte. V. Inkesta Soziolinguistikoa (2013) irakurri daitekeen bezala: “Gaur egun hamasei urtetik gorako biztanleen artean 1991n baino 185.000 elebidun gehiago dago (4,7 puntuko hazkundea). Izan ere, 1991an 16 urte edo gehiagoko 529.000 pertsona ziren elebidunak Euskal Herrian (%22,3). Gaur egun, ordea, 16 urte edo gehiagoko 714.000 pertsona dira elebidunak (%27)” (Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza, Hizkuntza-Politika eta Kultura Saila, 2013:20).

Edozelan ere, arrakasta eta aurrerapausoekin batera, euskararen transmisioak baditu hutsuneak, arazoak edo gabeziak. Artikulu honetan, euskararen transmisioan eragiten dute faktore batzuk aztertuko ditut, dauden ahuldadeak eta indarguneak hobeto ulertzeko helburuarekin.

1. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Goian esan dut Euskal Herriko bikote euskaldun edo misto gehienek euskaraz irakasten dietela euren seme-alabei. Dena dela, oraindik ere, euskara ez da ehuneko ehunean transmititzen Euskal Herriko familietan. Alegia, seme-alabei euskara irakatsi ahal dieten gurasoetariko batzuk (bikotekide biak euskaldunak edo bikote mistoak) gaztelera edo frantsesa irakasten diete euren umeei.

Joera hau Iparraldean ikusten da beste inon baino indartsuago. Guraso biak elebidunak diren kasuetan, Iparraldeko 2 eta 15 urte bitarteko seme-alaben %13ak ez du euskararik jasotzen etxean (%54k euskara bakarrik jasotzen du eta %33ak euskara eta erdara). Euskal Autonomia Erkidegoan (hemendik aurrera EAE) eta Nafarroan, askoz gutxiago dira gaur egun euskara transmititzen ez duten bikote elebidunak (%3

Arrakasta eta aurrerapausoekin batera, euskararen transmisioak baditu hutsuneak, arazoak edo gabeziak. Artikulu honetan, euskararen transmisioan eragiten dute faktore batzuk aztertuko ditut, dauden ahuldadeak eta indarguneak hobeto ulertzeko helburuarekin.

Euskara ez da ehuneko ehunean transmititzen Euskal Herriko familietan. Alegia, seme-alabei euskara irakatsi ahal dieten gurasoetariko batzuk gaztelera edo frantsesa irakasten diete euren umeei.

eta %4 hurrenez hurren) (Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza-Politika eta Kultura Saila, 2013:34-36).

Gurasoetako bat elebiduna den kasuetan ere, Iparraldean, EAEn eta Nafarroan baino gutxiago transmititzen da euskara. Bikotekide bat elebiduna den kasuetan, 2-15 urte arteko seme-alabak dituztenen %44ak ez du euskara transmititzen Iparraldean (EAEn %29ak eta Nafarroan %33k) (Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza-Politika eta Kultura Saila, 2013:34-36).

Zergatik gertatzen da hau? Zergatik guraso batzuk, nahiz eta euskaraz jakin, ez diete erakusten euren seme-alabei? Arrazoi ugari egon daitezke, baina nik jarrerak, hizkuntzari buruzko kontzientzia edo ideologiak aipatu nahi nituzke. Alegia, oraindik ere badira euskararen aurkako jarrerak edota ideologia dutenak (Amorrortu et al., 2009); eta horrek transmisioa ehuneko ehunean arrakastatsua izatea galarazten du.

Ondoren aurkezten den taulan (1. Taula) ikus daitekeen bezala, EAE-ko biztanleen %11,6, Nafarroako %34,5 eta Iparraldeko %21,3 euskararen erabilera sustatzearen aurka dago.

1. Taula: Euskararen erabileraren sustapenarekiko jarrera EAEn, Nafarroan, Iparraldean eta Euskal Herrian (>= 16 urte) (2011) (%)

	EAE	Nafarroa	Iparraldea	Euskal Herria
Alde	62,3	37,7	38,5	55,2
Ez alde ez aurka	26,1	27,8	40,2	27,7
Aurka	11,6	34,5	21,3	17,1
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza-Politika eta Kultur Sailak egindako V. Inkesta soziolinguistikoa, 2013, 54. orrialdea.

1. taulan ikus daitekeenez, jarrera ezkorrenak Nafarroan daude eta baikorrenak EAEn.

Datu hauen arabera, nola azaldu transmisioak Nafarroan baino arazo gehiago izatea Iparraldean? Sakonean aztertuta, nire ustez, Iparraldeko biztanleek nafarrek baino euskararen transmisioarekiko eta, oro har, euskararekiko jarrera ezkorragoak dituztelako.

Batetik, kontuan hartu behar da Iparraldeko elebidunek Nafarroako eta EAE-ko elebidunek baino aurkakotasun handiagoa erakusten dutela

euskararen erabilera sustatzearen inguruan (Iparraldeko elebidunen %73a dago euskararen erabilera sustatzearen alde eta EAE-ko eta Nafarroako elebidunen %88). Autogorrotaren ideologia (Joly eta Uranga, 2010: 189) EAEn eta Nafarroan baino hedatuagoa dago Iparraldean¹.

Aipagarria ere bada Iparraldean dagoela euren seme-alabentzako euskarazko ikasteredua (D eredua) nahiko luketenen ehunekorik txikiena (Iparraldeko biztanleriaren %19k nahiko luke euren seme-alabak euskarazko irakastereduetan sartzea, EAE-an %66ak eta Nafarroan %32ak). Gehienek (%44ak) frantsesean oinarritzen den irakaskuntza nahi dute umeentzat.

Eta kezkarriagoa dena, badirudi transmisioaren baitan ikusten diren arazo hauek okerrera egin dezaketela. Izan ere, euskara sustatzearen aurkako posizioak indartzen ari dira Iparraldean: euskararen aurkakoak %12,7 ziren 1996an, bost urte geroago %14,8, eta 2011n %21,3. Aipagarria ere bada gazteen artean (etorkizunean guraso izango direnengan) aurkitzen ditugula euskararen erabileraren aldeko ehunekorik txikienak (Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza-Politika eta Kultura Saila, 2012:56).

2. EMAKUMEAK

Ikerketek erakusten dute emakumeek gizonezkoek baino apur bat hobeto ulertzen, hitz egiten, idazten eta irakurtzen dutela euskaraz; hots, konpetenteagoak direla. Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2011n egin zuen azterketa batek zioenez, EAeko emakumeen %30ak euskaraz ondo ulertzen zuen (gizonezkoen %28k adierazten zuen hori), %27k ondo hitz egiten (gizonezkoen %26k), %28k ondo irakurtzen (gizonezkoen %26k) eta %25ak ondo idazten (gizonezkoen %22k) (Eusko Jaurlaritza, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2011). Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasunak ez dira oso nabarmenak, baina, nire ustez, tendentzia orokor bat erakusten dute.

Zergatik dira emakumeak apur bat konpetenteagoak, transmisioa, teoriarik behintzat, berdina bada guztientzat? Alde batetik, kontuan hartu behar dugu emakumeak gizonezkoak baino gehiago joaten direla euskaltegietara. Azken urteotako datuen arabera, EAE-ko euskaltegietan euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren ikasleen ia %70 emakumeak dira². Gainera, Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egin zuen ikerketaren (2011) arabera, EAeko emakumeen %41ak noizbait euskarazko klaseak hartu ditu eskolatik kanpora, eta gizonezkoen %38k izan du horrelako esperientziaren bat. Bestalde, emakumezkoen %10ak zioen sei hilabete baino gehiagoko ikastaroak eginak zituela, eta gizonezkoen artean hori

Zergatik gertatzen da hau? Arrazoi ugari egon daitezke, baina nik jarrerak, hizkuntzari buruzko kontzientzia edo ideologiak aipatu nahi nituzke.

baieztatzen zutenak %8 ziren. Are gehiago, oro har, emakumeek gizonezkoek baino euskara gehiago erabiltzen dute kalean, lanean zein ikasketa lekuan. Adibidez, Euskal Herriko emakume gazteen %13,9ak erabiltzen du euskara kalean eta gizonen gazteen %12,8k (ikus 2. Taula). Gainera, EAE-ko emakumeen %17ak euskara erabiltzen du lanean edo ikasketa lekuan; gizonezkoen artean, aldiz, leku hauetan euskara erabiltzen dutenak %11 dira (Eusko Jaurlaritzak, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2011).

2. taula: kale-erabilera Euskal Herrian, sexuaren eta adinaren arabera. 2011

Neurketa	EMAKUMEZKOAK				GIZONEZKOAK			
	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
urtea								
2001	21,3%	14,7%	11,1%	11,7%	20,0%	11,4%	11,0%	13,0%
2006	20,2%	14,4%	12,0%	10,1%	19,2%	12,0%	11,8%	11,1%
2011	19,9%	13,9%	12,0%	9,1%	18,6%	12,8%	11,4%	10,4%

Iturria: Juaristi, P. (2012): "Tipo idealak euskararen kale erabileran", *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 84. Zenbakia, Hizkuntzen kale-erabileraren VI. Neurketa, 139-152 orrialdeak.

Aipatzekoa ere bada Mintzapraktika programetan (euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez duten pertsonak —bidelariak— euskaraz hitz egitera ohituak daudenekin biltzen dira —bidelagunak—) emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago direla (Aztiker, 2010). Bidelagunen artean emakumeak %59,4 ziren eta gizonezkoak %40,6. Bidelarien artean, emakumeak %73 ziren eta gizonak %27.

Horrez gain, emakumeek gizonezkoek baino presentzia handiagoa dute euskara lanerako behar den lanpostuetan (hezkuntzan eta administrazioan nagusiki³), eta ziur asko horrek eragina dauka emakumeak gizonezkoak baino apur bat hobeto moldatzen direla euskaraz.

Edozelan ere, beste hipotesi hau ere bota nahi nuke: emakumeek gizonezkoek baino gaitasun gehiago dute euskaraz komunikatzeko (hobeto ulertzen, hitz egiten, idazten eta irakurtzen dute euskaraz), euskararekiko atxikimendu handiagoa eta baita euskararekiko jarrera hobea dutelako.

Eta iruditzen zait, euskararen feminizazio hau oso positiboa dela euskararen transmisioarentzat. Izan ere, emakumeek gizonezkoek baino denbora gehiago egiten dutenez umeekin⁴, pentsa daitekeena da, umeek, euskaraz hitz egiteko gaitasun handiagoa lortzeaz gain, euskara biziberritzeko garrantzitsuak diren osagai hobekoak ere jasotzen dituztela;

hala nola, euskararen aldeko kontzientzia, balioak, ideologia, sentimenduak, emozioak eta abar. Kontuan izan umetan jasotzen den hizkuntza-kontzientzia edota hizkuntzari buruzko ideologiak eragin zuzena izaten duela etorkizunean erabili eta transmitituko duten hizkuntza hautatzerakoan.

3. LANBIDE HEZIKETA

I

Transmisioaren bigarren hanka hezkuntza da. Eta egia esan, hezkuntzaren baitan lan asko egin da etxetik erdaldunak direnak euskalduntzeko.

2015-2016 ikasturtean, unibertsitatetik kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako EAE-ko ikasleen (383.156 ikasle guztira) %18,2 A eremuan matrikulatu zen, %18 B eremuan, %63,3 D eremuan (euskarazko irakaskuntza) eta %0,5 X eremuan (www.eustat.eus).

Edozelan ere, hezkuntzaren baitan egiten den transmisioak ere baditu oztopoak.

Alde batetik, hezkuntza-mailen eta ikasketa moten artean desberdintasunak daude euskarazko bigarren sozializazioari egiten dioten ekarpenaren ikuspuntutik. Lehen hezkuntzan hamar ikasletatik zazpik D eremuan ikasten du (%71) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) eta batxilergoan hamarretik ia seik (%58). Aldiz, Lanbide Heziketan eta Hezkuntza berezian bakarrik %24 dabil euskara hutsezko eremuan (%74ak A eremuan ikasten du).

Datu horiek argi erakusten dute Lanbide Heziketatik pasatzen direnak DBHtik edo Batxilergotik pasatzen direnak baino gutxiago euskalduntzen direla, edo behintzat euskararekin harreman akademiko txikiagoa dutela. Baita erakusten dute, etorkizunean, gure herriko eliteetarik asko (batxilergoa egin ostean unibertsitatetik pasatuko direnak eta gizarte zibileko kargua politiko eta ekonomikoak eskuratuko dituztenak) euskaldunak izango direla (edo behintzat euskararekiko harreman edo atxikimendu estuagoa izango dutela) eta, aldiz, langileria erdalduna edo behintzat euskararen ezagutza txikiagokoa izango dela.

4. EUSKAL IKASLEEN EUSKARAZKO KONPETENTZIA

Euskal Herriko ikasleatariko askok ikasten dute euskarak presentzia handia duen adarretan (B eta D irakastereduetan) eta A irakastereduan dabiltzanek ere euskara ikasgai gisa ikasten dute. Edozelan ere, ikasle

Emakumeek gizonezkoek baino gaitasun gehiago dute euskaraz komunikatzeko, euskararekiko atxikimendu handiagoa eta baita euskararekiko jarrera hobea.

Euskararen feminizazio hau oso positiboa dela euskararen transmisioarentzat.

Euskal Herriko ikasleatariko askok ikasten dute euskarak presentzia handia duen adarretan. Edozelan ere, ikasle guztiek ez dute lortzen euskaraz komunikatzeko izan beharko luketen gutxiengo mailarik.

guztiek ez dute lortzen euskaraz komunikatzeko izan beharko luketen gutxiengo mailarik.

Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI) 2015ean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. Mailan egin zuen Ebaluazio Diagnostikoaren (ED) arabera, jaitsi egin da maila horretako ikasleen euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia⁵. Hain zuzen ere, 2015ean, euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako batez bestekoa (249 puntu) 2013an eta 2011n lortutakoa baino nabarmen baxuagoa zen (-7 puntu bi kasuetan) eta 2009koa baino puntu bat txikiagoa. Zehatzago esanda, 2015ean, ikasleen %54,2k gainditu zuen kompetentzia honetako hasierako errendimendu maila⁶; edo gauza bera dena, ikasleen %45,8ak ez zuen lortu 13 urterekin euskarazko hizkuntza-komunikaziori dagokionez ikasleek izan beharko lituzketen ezagupen, trebetasun eta ahalmenak. DBH 4. mailako ikasleen artean, %36,1ak ez zuen gainditu kompetentzia honetako hasierako maila (www.isei-ivei.hezkuntza.net).

Euskara biziberritzeko prozesuan, asko espero dugu eskolatik, eta, egia esan, asko dira eskolaren bidez euskaldundu direnak. Edozelan ere, argi izan behar dugu eskolak ez duela miraririk egiten, umeen hizkuntza-gaitasunean eragiten duten beste faktoreak ahul badaude (besteak beste, gurasoek erabiltzen duten hizkuntza, aisialdiko eta eskolaz kanpoko jardueretan erabiltzen duten hizkuntza eta kontsumitzen dituzten hedabideen eta kultur produktuen hizkuntza). Bereziki kontuan hartzekoa da ingurune eleanitzetako haurrek gurasoen mintzamoldera baino gehiago euren adinkideen mintzaerara egokitzeko joera izaten dutela (Kasares, 2015), eta, ikerketek erakusten dutenez, euskal adarretan ikasten duten umeatariko askok erdaraz hitz egiten dutela beraien artean (Martinez de Luna et al., 2013:62). Eskolan ahalegin handiak eginda ere, adinkideen artean erdaraz hitz egiten bada, saila da euskaraz komunikatzeko gutxiengo mailarik lortzea.

5. UNIBERTSITARIOAK

UPV/EHU-ko euskara planean irakurri daitekeen bezala, etengabekoa da unibertsitatean euskaraz matrikulatzen diren ikasleen igoera. Azken urteotan, batez beste, urtero, ehuneko bat baino gehiago igo da euskal adarretako ikasleen kopurua⁷. Egun, unibertsitate publikoan sartzen diren ikasleen erdia baino apur bat gehiago euskarazko adarretan matrikulatzen da. 2013-2014 ikasturteko datuak oinarritzat hartzen baditugu,

matrikulatu ziren 5.184 ikasle berrien %56 euskarazko adarretan matrikulatu zen (UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidaria (2013-2017) <http://www.ehu.eus>).

Datuek baita erakusten dute jarraipen bat dagoela Batxilergoan eginiko hizkuntza-aukeraren eta unibertsitatean egiten denaren artean. 2013-2014 ikasturteko datuak hartzen baditugu, D ereduan ikasi eta ondoren UPV/EHU-n matrikulatu diren ikasleen %91,4k gradua euskaraz egitea erabaki zuen. Jarraikortasun hau irakaskuntzaren baitan egiten den transmisioaren arrakastaren adierazleatariko bat da, nire ustez.

Edozelan ere, badaude D ereduan ikasi eta unibertsitatean sartzeko hautapropa euskaraz egin ostean, gradua erdaraz egitea erabakitzen dutenak. 2012-2013 ikasturtean, adibidez, ikasle berrien %62,67ak hautapropa euskaraz egin zuen, baina gero %48,07ak erabaki zuen gradua euskaraz egitea (ikus 3. Taula). Hau da, ikasleen %12ak (600 bat ikaslek) batxilergoa eta unibertsitatean sartzeko hautapropa euskaraz egin ostean graduko erdal adarra aukeratu zuen⁸.

**Egun,
unibertsitate
publikoan
sartzen diren
ikasleen erdia
baino apur bat
gehiago
euskarazko
adarretan
matrikulatzen
da.**

3. Taula: Batxilergoa D ereduan egin zuten UPV/EHU-ko ikasle berriak, hautapropa euskaraz egin zutenak eta euskara taldeetako ikasle berriak (1997/1998-2012/2013)

Ikasturteak	Batxilergoa D ereduan egin zuten UPV/EHU-ko ikasle berriak	Hautapropa euskaraz egin zutenak	Euskara taldeetako ikasle berriak
1997/98	% 34,11	% 30,81	% 23,46
1998/99	% 33,53	% 32,62	% 26,24
1999/00	% 36,45	% 35,43	% 27,25
2000/01	% 40,09	% 38,01	% 30,53
2001/02	% 40,70	% 45,13	% 36,14
2002/03	% 41,87	% 46,36	% 35,73
2003/04	% 42,59	% 47,77	% 37,82
2004/05	% 44,35	% 50,07	% 39,60
2005/06	% 45,93	% 50,40	% 42,35
2006/07	% 46,55	% 51,82	% 42,52
2007/08	% 48,7	% 54,40	% 45,37
2008/09	% 51,7	% 54,94	% 46,10
2009/10	% 52,7	% 57,50	% 45,79
2010/11	% 53,8	% 60,78	% 42,81
2011/12	% 54,0	% 62,08	% 46,94
2012/13	% 56,9	% 62,67	% 48,07

Iturria: UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidaria (2013-2017) <http://www.ehu.eus>

Edozelan ere, badaude D ereduan ikasi eta unibertsitatean sartzeko hautaproba euskaraz egin ostean, gradua erdaraz egitea erabakitzen dutenak.

Zergatik gertatzen da hau? Zergatik batxilergoa euskaraz egin duten ikasle batzuk ez dituzte ikasketak euskaraz egiten? UPV/EHUko *Euskararen II. Plan Gidarian (2013-2017)* azalpen hauek irakurri daitezke: "...beste herrialde batzuetatik etorritako ikasleen portzentajeak, 25 urtetik gorako ikasleak edo beste titulazio bat dutenak, hautaprobak euskaraz egindako batzuek beste herrialdeetara joan behar izatea... eta, orobat, euskara-planetan aurreikusitakoak helburuak, ezarpenak, bete ez izana eta gradu batzuk euskaraz osorik ezin eskaini izana orain arte".

Arrazoi hauek onartuta ere, iruditzen zait ikasle batzuk (600 bat) ez direla euskal adarretan matrikulatzen, euren ustez, euskaraz komunikatzeko unibertsitatean behar den mailarik ez dutelako.

Datuok baita esaten digute unibertsitate publikoko ikasleen %44 inguru ez dela euskaraz prestatua izango. Hau da, unibertsitateatik aterako dira euskaraz hitz egiten jakin gabe edota euskarazko trebakuntzarik gabe. Gainera, ezin dugu ahantzi euskal ikasleatariko asko beste unibertsitate batzuetan (Mondragon Unibertsitatean, Deustuko Unibertsitatean, Paueko Unibertsitatean, Bordeleko Unibertsitatean edo Nafarroako Unibertsitate Publikoan...) ere sartzen direla, eta unibertsitate hauetan UPV/EHU-n baino kreditu gutxiago eskaintzen direla euskaraz⁹.

Arestian esan dut etorkizunean gure herriko eliteetariko asko euskaldunak izango direla, eta unibertsitateko datuen baieztapen hori indartzen dute. Edozelan ere, onartu behar da, oraindik ere, ikasle asko ateratzen dela unibertsitate euskararik jakin gabe. Beste berba batzuekin esanda: etorkizunean iritzi liderrak izango direnetariko asko erdaldunak izango dira.

6. AISIALDIA ETA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

Familia eta eskola ezinbestekoak dira umeak euskalduntzerakoan, baina aisialdiko jarduerak ere garrantzi handia dute. Izan ere, etxean euskararik jaso ezin dutenentzat euskara ikasteko edota sendotzeko bide egokia izan daiteke. Gainera, era honetako jardueretan umeek ikusten dute euskara ez dela eskola-hizkuntza bakarrik; alegia ondo pasatzeko hizkuntza ere izan daitekeela.

Eta itxura guztien arabera, gora doa umeentzako oportetako aisialdi-programen euskarazko eskaintza. Gazteen Euskal behatokiak egin zuen ikerketa baten arabera, 2010. urtean, EAEn, oportetako aisialdi-programen %52 euskaraz bakarrik eskaintzen zen, %31,2 programa elebidunak

ziren eta %3,1 gaztelaniaz bakarrik eskaintzen zen. 2011. urtean %62 ziren euskaraz eskaintzen ziren oporretako ekimenak, %25,4 euskaraz eta erdaraz eta %2,6 erdara hutsez (Gazteen Euskal behatokia eta Eusko Jaurlaritza, ez da adierazten noiz argitaratu zen, www.gazteaukera.euskadi.eus). Ez dago azken urteei buruzko daturik, baina pentsatu nahi dut oporretako euskarazko ekimenen eskaintzak gora egin duela.

Opor giroko ekimenetan pauso erabakigarriak eman dira, baina, nire ustez, hutsune nabarmena dago umeen eta gazteen eguneroko aisialdi eskaintzan. Daturik ez dago ere, egin ditudan behaketek erakusten didate euskarazko eskaintza ez dela D eta B eredueta ikasten duten ikasleen ehunekoen parekoa. Hau da, ez dut uste ume eta gazteentzako antolatzen diren aisialdirako ekimen guztien %81,3 (D eta B eredueta dabilzanen ehunekoen batuketara) euskaraz eskaintzen denik.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Zinema Euskaraz programa jarri zuen martxan, baina gure herri eta hirietan euskarazko filmak ikusteko aukera gutxi dago (Zinema Euskaraz programarekin, hilean film bat eskaintzen da hiriburuetan).

Gazteentzako musika kontzertu, antzerki emanaldi, ikuskizun eta abarrei dagokionez ere, urri gabiltza esango nuke. Daturik ez dago, baina iruditzen zait hiriburu eta hiri handietan arazoa are eta larriagoa dela.

Euskaraz eskaintzen diren eskolaz kanpoko jarduerekin antzerako zerbait gertatzen da: begitantzen zait erdarazko eskaintza dela nagusi. Eta hau oztopo larria da euskararen biziberritzearentzat. Izan ere, eta Arrue ikerketak erakutsi duen bezala, harreman zuzena dago eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan komunikazio hizkuntza euskara izatearen eta umeen euskararen erabileraren artean (Martinez de Luna et al., 2013:62).

7. EUSKALTEGIAK

Transmisioari buruz ari garela, ezin ahanzi euskaltegiak. Izan ere, euskaltegiek eragin handia izan dute euskal hitzun berriak sortzerakoan eta, beraz, Euskal Herriaren euskalduntze prozesuan. Ume eta gazte asko eskoletan euskaldundu badira ere, nagusi askok (baita gaztetxo askok ere) euskaltegietan ikasi dute euskaraz hitz egiten. Hain zuzen ere, 1989/1990 ikasturteetik gaur egunera, batez beste, 40.000 bat ikasle aritu izan dira euskalduntzen eta alfabetatzen EAE-ko euskaltegi publiko zein pribatuetan, eta horrek eragin zuzena izan du euskaldun kopurua handitzerakoan.

Opor giroko ekimenetan pauso erabakigarriak eman dira, baina, nire ustez, hutsune nabarmena dago umeen eta gazteen eguneroko aisialdi eskaintzan.

**90.
hamarkadaren
hasietarik gaur
egunera,
euskalduntzen
eta alfabetatzen
aritzen diren
ikasleen kopurua
txikitzen joan
dela.**

**Ikasleak
gutxitzeaz gain,
ikasleen adinak
gora egin du
nabarmen.**

Are gehiago, euskaltegiek kontzientziazio lan oso garrantzitsua egin dute. Arlo honetan ikerketak egin gabe daude, baina iruditzen zait euskaltegiek euskarari eta euskal kulturari buruzko jakin nahia piztu dutela ikasle askorengan eta hizkuntza-kontzientzia sendotu. Hots, euskal hiztun berri askok euskaltegietan hizkuntzarekiko inplikazio maila handia lortu dute, eta hori ezinbestekoa izan da transmisioa sendotzeko.

Edozelan ere, datuek erakusten dute, 90. hamarkadaren hasietarik gaur egunera, euskalduntzen eta alfabetatzen aritzen diren ikasleen kopurua txikitzen joan dela. Datu bat ematearren, 2014/2015 ikasturtean (33.979 ikasle) 1989/1991 ikasturtean (47.322 ikasle) baino 13.000 bat ikasle gutxiago aritu ziren ikasten EAEko euskaltegietan. Ondorioz, euskaltegiak gutxitu egin dira, baita matrikulak eta ikastorduak ere.

Ikasleak gutxitzeaz gain, ikasleen adinak gora egin du nabarmen. 1994-1995 ikasturtean EAE-ko euskaltegietan ikasten ari ziren ikasleek, batez beste, 27 urte zituzten, eta 2012-2013 ikasturtean aritu zirenek 37. Aldaketa hau ulergarria da, kontuan hartzen badugu, gaur egun, gazte gehienak eskolan euskalduntzen direla. Baina, nolabait, baita adierazten du euskara gero eta jende nagusiagoen ardura dela.

Azkenik, kontuan hartu behar da egoera hipotetiko-ideal batean euskara ikastera euskaltegietara hurbildu beharko liratekeen EAEko erdaldun eta elebidun hartzaile guztietatik (1.273.000 pertsona guztira) 2012-2013 ikasturtean 32.378 ikasle etorri zirela¹⁰. Alegia, euskara ikasi beharko luketen guztien %2,5 joaten zen euskaltegira.

Datu hauek emanda, ez dugu adierazi nahi euskaltegien sektorea gain-behera doanik. Euskaltegiek euskaldunak sortzen eta euskararen aldeko kontzientziaren lan garrantzitsua egiten dute; gainera, azken urteotan apur bat handitu egin da euskaltegietara hurbiltzen direnen kopurua. Edozelan ere, bai iruditzen zait 90eko hamarkadatik euskaltegiek izan duten erakargarritasuna apur bat apaldu egin dela.

8. HEDABIDEAK ETA EUSKAL KULTUR PRODUKTUAK

Transmisioa hedabideen eta kultur produktuen bidez ere egiten da. Zenbat jende hurbiltzen da euskarazko komunikabide eta kultur produktuetara? ETB-1eko programa arrakastatsuenak 84.000 pertsonengana heltzen dira, Euskadi Irratiak 100.000 jarraitzaile inguru omen ditu eta 62.000 pertsonak irakurtzen dute egunero *Berria* egunkaria. Beraz, euskaraz dakitenen %10tik %15era dira euskarazko komunikabideen

eguneroko jarraitzaileak. Euskal zinearen jarraitzaileak, gehienez jota, euskaraz dakitenen %10 dira, eta bertsozaleak 54.000tik 88.000rako tartean daude; hau da, euskaraz dakitenen %10 - %15. Euskal literatura erosten dutenak askoz gutxiago dira: 4.000 - 5.000 pertsona omen dira euskarazko liburuak erosten dituztenak, hau da, euskaraz dakitenen %0,6tik - %0,75ra (Juaristi, 2013:7-19).

Argi dago, beraz, jende gutxi hurbiltzen dela euskarazko hedabide eta kultur produktuetara. Hau da, onartu beharra dago hedabideen eta kultur produktuen bidez giten den euskararen transmisioa ahula dela.

9. ONDORIOAK

I

Hizkuntza baten transmisio arrakastatsua faktore askoren konbinazio egokiaren emaitza da.

Lehenengo eta behin, ezinbestekoa da hizkuntza horren ezagutzearen eta erabileraren aldeko ideologia gizartean hedatua egotea. Hau da, hizkuntzak prestigioa izan behar du. Iñaki Martínez de Lunak aldizkari honetan bertan argitaratzen duen artikuluan dioen bezala, “Bizirik eta osasuntsu dirauen hizkuntza baten transmisioa maila kognitiboko gaitasuna eskuratzetik harago doa, dimentsio afektiboa, identitarioa, simbolikoa eta komunitarioa ere beharrezkoak direlako”¹¹.

Eta iruditzen zait, oraindik ere, euskararen aurkako ideologiak bizirik eta indartsu daudela. Gaztelera edo frantsesa soilik dakiten batzuk pentsatzen dute gaztelera edo frantsesa, ez besterik, erabili behar direla, harremanetarako, kulturarako edota zientziarako aberatsagoak eta egokiagoak direlako (egozentrismo glotikoa) (Joly eta Uranga, 2010: 188). Badira ere pentsatzen dutenak Euskal Herriko elebitasuna ekonomikoki garestiegia dela (ideologia ekonomizista). Naturan bezala, hizkuntza-komunitate indartsuenak gailenduko direla, eta ahulenak desagertuko direla aldarrikatzen dutenak ere aurkitzen ditugu (hizkuntza-darwinismoa) (Joly eta Uranga, 2010: 188). Beste batzuentzat, euskararen alde ez da politika publikorik egin behar, hizkuntzak berez erregulatzen direlako (hizkuntza-liberalismoa) (Joly eta Uranga, 2010: 189). Arrazoi desberdinengatik euskara gorrotatzen duten euskal hiztunak ere badira; hau da, autogorrotoaren ideologia dute eta, ondorioz, euskara gaztelera edo frantsesa baino okerrago baloratze dute (Joly eta Uranga, 2010: 189). Azkenik, Aracilen hitzetan “elebizaleak” edo “bilinguistak” ditugu (Solé i Camardonsen, 1991:28); hau da euskararen alde daudela diotenak, baina euskararen aldeko neurrien aurka agertzen direnak (Amorrortu et al., 2009).

**Euskaraz
dakitenen %10tik
%15era dira
euskarazko
komunikabideen
eguneroko
jarraitzaileak.**

**Jende gutxi
hurbiltzen dela
euskarazko
hedabide eta
kultur
produktuetara.**

**Hizkuntza baten
transmisio
arrakastatsua
faktore askoren
konbinazio
egokiaren
emaitza da.**

**Lehenengo eta
behin,
ezinbestekoa da
hizkuntza horren
ezagutzearen eta
erabileraren
aldeko ideologia
gizartean
hedatua egotea.**

Ideologia hauek bizirik dirauten bitartean, familietan egiten den transmisioa ez da ehuneko ehunean gauzatuko, gurasoek euren seme-alabak A ereduan matrikulatzen jarraituko dute, euskaltegietara erdaldun eta elebidun hartzaile gutxi hurbilduko da eta euskal hedabide eta kultur produktuek arrakasta gutxi izango dute.

Hizkuntzen inguruko ideologiak aldatzearekin batera, gutxitutako egoeran dagoen hizkuntza baten transmisio egokiak eskolaren inplikazio zuzena eskatzen du. Ahul dagoen hizkuntza bat biziberritzeko ezinbestekoa da maila eta ikasketa mota guztietan hizkuntza ikasteko aukera ziurtatzea. Euskararen kasuan, DBH-n eta batxilergoan lanbide heziketan baino ahalegin gehiago egiten da gazteak euskalduntzen. Eta horren arriskueterako bat da gizarteko talde eta mailen artean desorekak sortu daitezkeela; zehatzago esanda, arriskua da gizarte gatazka eta hizkuntza gatazka nahastu daitezkeela.

Horrekin batera, eskolak euskaraz komunikatzeko maila egokia eman beharko lieke ikasleei. Alferrik da ideologia aldatzeko ahaleginak egitea eta umeak euskarazko irakastereduetan matrikulatzea, gero euskaraz komunikatzeko behar bezalako mailarik gabe ateratzen badira eskolatik. Are gehiago, arduratzekoa da 2015ean, euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetenziako batez bestekoa 2013an, 2011n eta 2009an lortutakoa baino baxuagoa izatea. Nire iritziz, transmisioa sendotzeko ezinbestekoa da eskolaren esparruan gertatzen diren galera hauen aurka politika zehatzak martxan jartzea.

Euskaltegien inguruan ere gogoeta egin beharra dago. Zehatzago esanda, ikerketak egin beharko lirateke 90eko hamarkadatik euskaltegietara doazen ikasleen kopuruak zergatik gutxitu diren jakiteko, baita jende gehiago erakartzeko zer egin beharko litzatekeen ezagutzeko ere.

Familiaren, eskolaren eta euskaltegien esparrua garrantzitsuak dira, baina ezin ahanzi aisialdia eta eskolaz kanpoko jarduerak. Transmisioa familiatik eta eskolatik kanpo modu ludikoan ere egin behar da.

Daturik ez daukat, baina ume eta gazteentzako aisialdirako eta eskolaz kanpoko jardueren euskarazko eskaintza urria dela iruditzen zait.

Urri Urizar eta Amaia Gabilondo-k *Gazteen Aisialdia eta Euskara* lanean zioten bezala, aisialdiko jardueretan boluntario asko aritzen da eta horietariko askok ez dakite euskaraz. Gainera, ekimen pribatuak izaten dira sarritan, eta, ondorioz, horiei bideratutako politika publikoak egitea zaila da (www.ivap.euskadi.eus).

Azken urteotan, bereziki EAE-ko erakunde publikoek euskararen erabilera aisialdian eta eskolaz kanpoko ekintzetan bultzatzeko diru-laguntzak jarri dituzte martxan. Edozelan ere, iruditzen zait gehiago egin daitekeela; umeen eta gazteen aisialdia eta eskolaz kanpoko jarduerak euskalduntzeko plan orokor bat egin beharko litzateke.

Azkenik, hedabideak eta kultur produktuak aipatu behar ditugu. Eta esan bezala, gutxik kontsumitzen dituzte euskarazko hedabideak, euskarazko liburuak erosten edo euskarazko zinea ikusten. Eta hori arazo larria da euskararen transmisioarentzat. Izan ere, kultur produktu eta komunikabideek hizkuntza modu jostagarri, erraz eta erakargarrian barneratzen laguntzen dute, baina, tamalez, gure gizartean erakargarriagoak zaizkigu erdarazko hedabide eta kultur produktuak; eta, beraz, bide honetatik egiten den transmisioak arazo asko ditu. Zentzu honetan, pentsatu egin beharko genuke gure hedabide eta kultur produktuek zergatik ez duten behar bezalako erakargarritasunik edota eraginik.

Ideologia, familia, eskola, euskaltegia, aisialdiko eta eskolaz kanpoko jarduerak, hedabideak eta kultur produktuak. Horra euskararen transmisioari begira ahanzi ezin diren arloak. ●

OHARRAK

1. *Soziolinguistika Eskuliburuan* irakurri daiteke bezala: "...autogorrotu fenomenoak hizkuntza gutxituaren hiztuna bere hizkuntza hizkuntza menderatzailea baino okerrago baloratzen bultzatzen du" (Joly eta Uranga, 2010: 189)
2. 2010/2011 ikasturtean, adibidez, 39.398 ikasle aritu ziren euskalduntzen eta alfabetatzen EAE-ko euskaltegietan, eta ikasleen %67,4 emakumeak izan ziren (www.eustat.es).
3. Adibidez, Euskal AEko araubide orokorreko irakasleen artean, 2014/15 ikasturtean, irakasleen %87 emakumeak ziren (29463) eta %13 gizonak (13.143) (www.eustat.es).
4. EUSTAT-ek 2013an egin zuen *Denbora-aurrekontuen Inkestaren* arabera, emakumeek egunean 1:29 minutu pasatzen dituzte etxeko pertsonak zaintzen eta gizezkoek 1:10 (www.eustat.es). Eustatek argitaratutako *Bi hamarkadako gizarte-aldaketa EAEn denboraren erabilaren bitartez. Denbora Aurrekontuen Inkesta, 1993-2013* laburpen dokumentuan ere zera irakurri daiteke: "...emakumeak dira okupazio horietan denbora-kopuru handiena ematen dutenak, eta emakumeen inplikazioaren ehunekoa ere handiagoa da" (Eustat, 2015:14).
5. "Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia hizkuntza erabiltzeko trebetasuna da, hau da, kontzeptuak, sentimenduak, gertakariak eta iritziak ahozko eta idatzizko diskurtsoen bidez adierazi eta interpretatzeko eta gizarte- zein kultura-ingurune guztietan linguistikoki elkarreragilekoa" (ISEI-IVEI eta Eusko Jaurlaritza: http://ediagnostikoak.net/ediag/cas/item-liberados/ED09_Euskadi_Euskara_DBH2.pdf).
6. "Ebaluazio diagnostikoan emaitzak hiru konpetentzia-mailatan banaturik aurkezten dira: hasierako maila, erdi-maila eta maila aurreratua. Maila bakoitza ikasleei maila horretan aurkezten zaizkien egoerei irtenbidea emateko behar dituzten ezagupenek, trebetasunek eta ahalmenek definitzen dute. Ikasle bat maila jakin batean dagoenean, maila horretako trebetasunetan eta beharagoko mailetakoetan gai dela esan daiteke. Maila horietako bakoitzak ikasleak zer egiten dakien deskribatzen du, eta probetako puntuazio-tartei loturik dago" (ISEI-IVEI eta Eusko Jaurlaritza, 2015, Emaitzen txostena interpretaatzeko argibideak. ED15, www.isei-ivei.hezkuntza.net).

Eta iruditzen zait, oraindik ere, euskararen aurkako ideologiak bizirik eta indartsu daudela.

7. 2010/11 ikasturtean, euskaraz ikasi zuten ikasleen jaitsiera bat izan zen, puntuala eta ikasturte horretakoa bakarrik. UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidarian irakurri daitekeen bezala: ikasturte horretan, gradu titulazioak ezarri ziren urtean, Lanbide Heziketatik zeukaten notarekin etorri ziren ikasle asko, eta horrek eragina izan zuen unibertsitateko ikasle multzoan. Hurrengo ikasturtetik aurrera, Lanbide Heziketatik datozen ikasleei Hautaprobak eskatu zaizkienez, aurreko urteetako egoerara itzuli zen, %45,79tik %46,94ra pasatuz bi urtean (UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidaria (2013-2017) <http://www.ehu.eus>).
8. 2013-2014 ikasturteko datuetan ere antzerako zerbait ikusten da: D ereduari ikasi eta ondoren UPV/EHUn matrikulatu ziren ikasleen %91,4k erabaki zuen gradua euskaraz egitea. 660 ikaslek, aldiz, euskaraz ikasi eta hautapropa euskaraz egin ostean erdaraz ikastea erabaki zuten. Aipagarria ere bada hautapropa erdaraz egin zuten 101 ikaslek ikasketak euskaraz egitea erabaki zutela (UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidaria (2013-2017) <http://www.ehu.eus>).
9. 2015-2018 Unibertsitate Planean irakurri daitekeen bezala, Deustuko Unibertsitatean graduko kredituen %34 euskaraz eskaintzen da eta Masterreko Kredituen %3; Mondragon Unibertsitatean kredituen %70 eta UPV/EHU-n kreditu guztien %77 (Eusko Jaurlaritza, Unibertsitate Plana 2015-2018. www.euskadi.eus).
10. V. Inkesta Soziolinguistikoa arabera, 2011n, EAEn bizi ziren 16 urte edo gehiagoko 1.873.000 pertsonetatik 600.050 elebidunak ziren, beste 322.000 elebidun hartzaileak eta 951.000 erdaldunak (Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza-Politika eta Kultura Saila, 2013:68)
11. Artikulu honen oinarrian Iñaki Martínez de Lunak idatzitako artikulu bat dago. Artikulu hori aldizkari honetan agertzen da, baina ez dakigu aipatzen dugun pasartea zein orrialdetan agertuko den.

BIBLIOGRAFIA

- Amorrortu et al. (2009): *Erdaldunen euskararekiko aurreritziak eta jarrerak*. Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.
- Aztiker (2010): *Mintzapraktika egitasmoaren eraginkortasuna nuertzen. Emaitzen txosten nagusia*. Kultura Saila, Eusko Jaurlaritza.
- Euskararen Aholku Batzordea (2004): *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. **Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia, Vitoria-Gasteiz**.
- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza-Politika eta Kultura Saila (2013): *V. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza-gaitasuna. Transmisioa. Jarrera. Erabilera*. http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-17894/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/encuestas_sociolinguisticas.html
- Eusko Jaurlaritza, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2011): *Euskara: erabilera, jarrerak, politikak*. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, www.euskadi.net/estudios_sociologicos
- Eusko Jaurlaritza: *Unibertsitate Plana 2015-2018*. Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.
- Eustat (2015): *Bi hamarkadako gizarte-aldaketa Euskal AEn denboraren erabilaren bitartez. Denbora Aurrekontuen Inkesta, 1993-2013*. Eustat, Vitoria-Gasteiz.
- Gazteen Euskal behatokia eta Eusko Jaurlaritza: *Oporretako aisialdi eta astialdirako baliabideen Mapa, 2010 eta 2011*. Gazteen Euskal behatokia. Eusko Jaurlaritza (www.gazteukera.euskadi.eus).

- Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI) eta Eusko Jaurlaritza (2015): *Ebaluazio Diagnostikoa. Txosten exekutiboa. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila*. Isei-Ivei eta Eusko Jaurlaritza, <http://www.isei-ivei.hezkuntza.net>
- ISEI-IVEI eta Eusko Jaurlaritza (2015): *Emaitzen txostena interpretatzeko argibideak*. ED15, www.isei-ivei.hezkuntza.net.
- Joly, L. eta Uranga, B. (2010): "Hizkuntza-ideologia eta hizkuntza-jarrerak" In Arkaitz Zarraga et al.: *Soziolinguistika Eskuliburua*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra.
- Juaristi, P. (2012): "Tipo idealak euskararen kale erabileran", *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 84. zenbakia, 139-152 orrialdeak.
- Juaristi, P. (2013): "Zenbatek kontsumitzen dute euskal kultura?", *Karmel aldizkaria*, 282 zenbakia, 2013-2, apirila-ekaina, 7-19 orrialdeak.
- Kasares, P. (1995): "Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga", *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 94. zenbakia, 13-45 orrialdeak.
- Martinez de Luna, I. et al. (2013): *Ikasleak Hiztun. 2011ko Arrue Proiektua. Ikerketaren emaitza eta adituen iritzi-azalpenak*. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia, Vitoria-Gasteiz.
- Solé i Camardons, J. (1991): Soziolinguistika gazteentzat*. UEU, Bilbo.
- UPV/EHU: *Euskararen II. Plan Gidaria (2013-2017)*. <http://www.ehu.eus>
- Urizar, U. eta Gabilondo, A. (datarik gabe): *Gazteen Aisialdia eta Euskara*. http://www.ivap.euskadi.eus/r61-vedorok/es/contenidos/informacion/1021/es_6163/informes_basicos.html